



2000-2004. urteetan jaiotako nerabeen gurasoei BILERA deialdia

Kaixo gurasok,

2016-2017. ikasturtea hasi da jada eta Udalaren Parte-hartzea Sustatzeko Zerbitzua(PSZ) martxan jartzeko prestutasunarekin gatoz, zerbitzua eraginkorra, egonkorra eta iraunkorra izan dadin.

Eskaintza iraunkorra eskaini nahi dien zerbitzua da eta hauen nerabezarotik gaztarora transizio prozesuaz gozatzeko, aukera egonkorra eta etengabea bermatzea etapa honek dituen zentzuak kontutan hartuz.

Zergatik esku hartu beraien bizitzatan?

Alde batetik, esku hartze hau ardua publikoa delako. Horretarako, eskuragarri jarri behar ditugu euren beharrak asetzeko ezinbesteko dituzten bitarteko eta baliabideak. Beraiengan eragin eta laguntzeak adin-tarte bakoitzari egokitutako arreta berezituak eskaintzea dakar.

Bestetik, herritar aktibo izateko eskubidea bermatzeko. Hau da,

- Haur, nerabe eta gazteei, osotasunean, arreta eskaini nahi dielako.
- Eskaintza iraunkor eta koherentea izan nahi duelako.
- Aisiaren esparruan eragin nahi du, hezkuntza ez-formalaren ikuspegitik, beti ere.
- Partaidetzaren aldeko apustua egiten duelako.

Zerbitzuak etorritakoak eta etorri gabekoak kontuan izanik lan egin behar du, herriko beste espazioetan ere presentzia izan behar duelarik.

Ezinbestekoa izango da, familien ezagutza izatea eta hauen beharrei erantzuna ematea; sarean lan egitea udalerrian horiez guztiez arduratzen diren pertsonekin.

Guraso eta helduen gizaratearekiko:

- Helduen gizarateari haurtzaro, nerabezaro eta gaztaroaren aldi hori bizitzeko dituzten moduak ulertaraztea.
- Nerabeen izaera desberdinen normalizazioa ahalbidetzea.
- Gurasoen inplikazioa, beste profesional batzuekin nerabeak aktiboki hezteko modu egokiak lantzeko.

Zuen inplikazioa eta arreta oso lagungarria eta baliagarria izango da Zerbitzuari zentzua eman eta martxan jartzeko, bildu nahi ditugun datuak jasotzeko,hau da:

- Zer eskaintzen diete 12 eta 16 urte bitarteko nerabeei?
- Eskolaz kanpo zein eskaintza dute?
- Zein aisialdiko eskaintza dute herrian urtean zehar. Nahikoa da? Zer botatzen dute faltan? Zer hobetu?
- Adin horietako nerabeak zer egiteko ohitura dute: astean zehar, asteburutan, oporraldi garaietan, eguraldi ona eta txarrarekin...?
- Adin horietako nerabeen bilguneak zeintzuk dira: astean zehar, asteburutan, eguraldi ona eta txarrarekin.
- Nerabeei galdetu,zer gustoko lukete urtean zehar aisialdi denboran egitea?Noiz?Egunak?Non?

Guzti honekin nerabeei zuzendutako proposamena landuko dugu,jakiteko ea:

- Zer eskaini.
- Zertarako eskaini(justificazioa).
- Adin tarteak
- Non.Tokia,elkarguneak.
- Ordutegia eta zabaltze egunen proposamena.

BILERA DEIALDIA (Alkatea+Zinegotzia+Suspertzailea+Gurasoak)

EGUNA: URRIaren 4ean, ASTEARTEA

TOKIA: UDALETXEAN-PLENO ARETOAN

ORDUA: 18:00etan

Eskerrik asko zuen arretagatik eta bertan elkar ikusiko dugulakoan agurtzen gara.

Iker Lojo Ochoa de Alda. Ataungo Suspertzailea. ataunaisia@ataun.eus